



Ganbarak lortu duen sari berdina eskura du Euskalduna taldeak

Saskibaloitako taldeak maila berrian jokatu du datorren denboraldian, futbol taldeak eskura dauka lorpen berbera.

Donostia maite dute **Ganbara-Euskalduna** taldekoek. Intxaurren lortu zuten maila hobean jokatzeko saria, Larra txo eta Easo taldeak gaindituta hurrenez hurren. Donostia maite izateko arrazoiak ez zaizkie falta. Beste gauza bat da donostiarrek Andoain maitatzen duten. Oraindik orain Larraxoko eta Easoko jokalariek faborito ez zen taldearekin gogoratzen arituko dira.

Marka da gero Andoangoek lortu dutena. Hamabi fitxara ez da iristen senior mailako taldea eta ligaskan hirugarren postuan sailkatu zen. Jokalari horiekin aurkeztu ziren aurreko asteburuan Intxaurren kiroldegian *Final-four* delakoa jokatzera. Lau hautagai eta saria bakarrarentzat. Eta ez nolana hikoia, estatuko erkidego ezberdinetan aritzea zegoen joan. Easo izan zen denboral-



Kopuruz txikia izanik ere, bertute ugari dituela erakutsi zuen saskibaloitako taldeak. Bestela ezin ulertu lortu duten emaitza bikaina.

dian onena, ondorioz, Easo zen faborito. Andoaindarrak, ordea, azken minutuko azken jokaldian aurkari huts egiteaz baliatu ziren 62-64 irabazteko. Partida onenetan bezala, emozioa amaiera arte. Bihotzak lehertu beharrean, zorarena iritsi zen harmailetara. Herritik joandako zaletuek ederki gozatu zuten igandeko goiza. Saria eskuratuta, jokala-

riek eta zaletuek bazkari batekin ospatu zuten garaipena.

Aitor Aramendi jokalariek egoeraren berri eman dio Aiurri, "Bero-bero gaude datorren denboraldiari begira. Jauzia handia da, urruti jokatzera egokituko zaigu, ekonomikoki gastua handiagoa izango da. Bestalde, jokalariek konpromiso handiagoa agertu beharko dugu". Oso argi daukate mai-

lara igotzea lortu dutenak izango direla egitasmo berriaren oinarri. Geroa zain dagoen bitartean, zorianak saskibaloitakolari.

FUTBOLARIEN TXANDA

Futbolariaren garaipena besterik ez da falta Andoango kirol taldeen hilabetarik arrakastatsuen borobiltzeko.

Euskara gaitzat hartuta inkesta burutuko da laster

Andoain eta Urnietan herrietan telefono bidezko ikerketa soziologikoa landuko du Ikertalde taldeak. Buruntzaldeko udalek eta euskal komunikabideek sustatu dute ikerketa lan hau. Datorren asteetan, beraz, Urnietako eta Andoango hainbat etxetara deituko dute tokiko prentsa galdera sorta egiteko.



Dantzarien biltzarra

(Argazki gehiago, 16. orrialdean)

Urnietan

- Benjamin festa kiroldegian
- Tomasena IU-ko zinegotzia.

4. or.
13. or.

InfoAiurri

- Hiazinto Fernandorenaren iritzia.
- Denborapasak.

14. or.
14. or.

Azkena

- Buruntzaldeko ekimenak.
- Eskualdeko dantzari txikiak.

16. or.
16. or.

Gehigarri berezia

- 36ko Gerra Andoainen: fusilatuen omenezko eskultura I-VIII. or.



IES Lasarte – Usurbil BHI

HEZIKETA ZIKLOAK (A/D ereduak)



Erdi maila:

- Administrazio kudeaketa
- Merkataritza 2.



Goi maila:

- Administrazioa eta Finantzak
- Informatika Sistemaren Administrazioa 2.

Eskaintza partziala (2006-2007)

- Informatika sistemen administrazioko Goi mailako Heziketa Zikloa
- Goi mailako Heziketa Zikloetarako sarbide ikastaroa



KILOMETRO BETE PASATXOKO IBILBIDEA JAITSI BEHARKO DUTE

Goitibeherazaleen txanda

Urnietako bi auzoak lotzen dituen bidea itxi egingo dute. Hain zuzen, goizez 10:00etatik 12:00tara entrenamendu ofizialak izango dira eta arratsaldean, berriz, bi lasterketatan banatuta goitibehera jai-

tsierak jokatuko dira. Euskadiko Txapelketarako proba puntuagarria izango da larunbatean jokatuko dena.

Larunbat honetan, 16:00tik aurrera Bidegurutzeta eta Zabaleta auzoen artean

Aldapa bat jaisteko modu asko daude; autoz, bizikletaz edo ta oinez. Edozein ibilgailuetan joanez gero, beti freno zapaltzen joan beharra dago, ziztu bizian joan eta bere kontrola galdu nahi ez badugu. Eta aldapa bera goitibehera batean jaitsi beharko bagenu? Bazterra jotzeko arrisku gehiago dagoenez, kontu handiz eta trebetasun edo abilezia ikaragarria beharko genuke. Baina txapelketa denean, garrantzitsuena irabaztea izan ohi da.

EUSKAL JAIEN BARRUAN

Helburu horrekin edota ondo pasatzeko asmoz, gazte ugari emango dute izena larunbat honetan Urnietako Euskal Jaietan izango den goitibehera saioan. Bidegurutzeta eta Zabaleta auzoen artean jokatuko da. Kilometro bete pasatzeko ibilbidea zeharkatu beharko dute. Urnie-



Andoaingo Santakruzetan egindako jaitsiera ikusgarria izan zen. Urnietakoa ez da gutxigorako izango.

© Fotocolor

tatik ez ezik inguruko herrietatik goitibeherekin gazte ugari etortzea aurreikusten da.

Urnietako bi auzoak lotzen dituen bidea itxi egingo dute. Hain zuzen, goizez 10:00etatik

12:00tara entrenamendu ofizialak izango dira eta arratsaldean, berriz, bi lasterketatan

Euskadiko Txapelketarako proba puntuagarria izango da larunbatekoa

banatuta goitibehera jaitsierak jokatuko dira. Euskadiko Txapelketarako proba puntuagarria izango da larunbatean jokatuko dena. Lehiaketan parte hartzen dutenek bazkaria doan izango dute.

Eguraldiak laguntzen badu, garai batean leku berean biltzen zen adina ikusle gerturatuko da bide bazterretara.

Buru gainean kaskoa, soinean arropa luzea, eta ahal den babestuena joatea komeni da. Hain zuzen, ibilbidean aldapaz gain, biragune itxi ugari daude. Parte hartzeko izen ematea zabalik izango da larunbatera arte. Kilometro pasatzeko ibilbidea goitibeheraz jaisteko hamabost euro ordaindu behar dira.

IMANOL ERAUNTZETAMURGIL, 20 URTE



rrian goitibehera ondo zuzendu behar du. Atzean doanak asko lagundu behar du, bultza eta kontrapisuarena egin behar baitu. Goitibehera batetik bestera alde txikia bada ere beti nabarmentzen da.

Goitibehera saioa kirola edo jai al da?

I.E.: Denetik dago. Batzuk irabaztera doaz, ahal duten denbora gutxiena egitera doaz; beste batzuk, aldiz, jaitsierarekin gozatzera. Oro har, saioa jai giroan bizi dut baina jaisterakoan lehiatu egiten dugu. Une horretan, kirol ekin-tza gisa bizi dut.

Gomendiorik parte hartzaileei?

I.E.: Mantso eta kontu handiz ibili daitezela. Ondo pasa dezatela. Gainera, bazkaria ere izango da.

Aldapak jaisten bizipen ugari izango dituzu?

I.E.: Frenorik gabe geratu ginen Andoinen eta bazterra jo genuen. Idiazabalen errepidera auto bat atera zitzaigun. Bidea itxia zegoen baina baserriren bate-tik aterako zen. Gu goitik behera eta autoa bidean. Nola edo ahala pasa genuen autoa. Jendeak jakinarazita autoa bide ertzerara alboratu zen. Bestela...

Andoaingo Santa Krutz jaietan goitibehera saioa ikusi eta bertan parte hartzeko gogoia izan zuen. Asier Lizasorekin batera goitibehera egin eta larunbatean Urnietan irtengo dira.

Goitibehera on bat egiteko formula sekretua

I.E.: Gurpil onak izatea. Gidariak eta bere atzean doanak ere onak izan behar dute. Aurrekoak ahal duen neu-

ASIER LIZASO, 20 URTE



batera eta kidea beste aldera badoa... Han bizia biok arriskatu dugu. Edozer gertatuta ere seguruak daude.

Goitibehera saioa kirola edo jai al da?

A.L.: Beste herrietako lagunak ditugu. Beti haien aurretik geratu nahi izaten dugu, baina lehia herri barruko lagunaren artean ere izaten dugu. Jai giroan eta lehia moduan bizi dut. Jaistean dagoen lehia kontuan hartuta, une horretan kirol gisa; bestela, jai moduan.

Gomendiorik parte hartzaileei?

A.L.: Jendea bertan parte hartzerari animatu nahi dugu; bai herrikoei eta baita kanpotik datozenei ere, horrelako lasterketa gutxi egiten baita. Babesteko ahal den guztia egitea komeni da, agian, freno gabe gera zaitezke eta. Bestalde, bazkaria doan izango da goitibeheratan parte hartzeagatik.

Aldapak jaisten bizipen ugari izango dituzu?

A.L.: Guri adibidez, Andoainen azken unean gurpilak askatu zitzaizkigun. Ondo eginda genuen goitibehera, baina *direkzioa* zuzentzea ahaztu zitzaidan. Paretaren aurka jo genuen. Ikus-kizun ederra eman genuen.

Aurten, Urnietako goitibehera saioa antolatzen dabil. Imanol Erauntzetamurgilekin goitibeheran aldapa jaisteko prest da.

Non da formula sekretua?

A.L.: Hori bakoitzak duen helburuaren arabera izan ohi da. Askok buruari buelta asko ematen dizkiote, goitibehera egiterakoan. *Txasisa* zuzena izatea garrantzizkoa da. Bestela, gidaria alde

ASPALDIKO TRADIZIOA URNIETAN



Ehunka ikusle hurbiltzen zen orain hamarkada batzuk Goitibehera proba ikustera.

© Joseba Lizeaga



Ordutik hona goitibeherak egiteko teknika guztiz aldatu da.

© Joseba Lizeaga

6x0 HIPOTEKA >GO



Sei hutsari ezetz aurkitu hau bezalako hipoteka bat

%0 ko interesa lehenengo 6 hilabetetan gainerako epean: Euribor+0,55

Irekitze komisioa: %0,50
Amortizazio Aurreratuaren komisioa: %0
Kitapen Aurreratuaren komisioa: %1
Epea: 40 urte
Zenbatekoa: Tasazio-balioaren %80a arte

U.T.B. adibidea: **%3,401**

2006-03-23ko BOEn argitaratutakoaren arabera, urtebeteko Euriborraren azken indizea (%2,914) oinarri hartuta kalkulatu da 25 urterako mailegu batentzat.

Eskaintza horretaz baliatu ahal izango dira 36 urte baino gutxiago dituztenek EAE eta Nafarroan 2006-06-30a arte.

Euskadiko Kutxak gazteen alde egin duen apustua

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

RBE nº: 1885/06

eska ezazu **fruta euskaraz**

Andoain, Astigarraga, Harnani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

Fruta denden zerrenda:

ANDOAINGO FRUTA DENDAK		
Dendaren izena	Helbidea	Telefonoa
Adarra Iztuak	Hazkita 16	943-590 669
Frutas Aniak	Goikopla 24	943-590 877
Ultramarinos Madinabeitia	Gurmend 27g	943-592 206
Eroski Supermerkatua	Zumea plaza 27g	943-204 123
Super Amara sL	Gudaren etorbidea 36	943-203 521
Super BM	Hazkita 1	943-592 881
Alproxx	Arteta 7-9	943-200 867
Eko Tolosa	Kale Nagusia 33	943-590 075
Jaurgi Jaiarrenda	Larramendi 11	943-590 759
Kale-beki Okindegia	Kalebeki 20	943-594 437
Iurza	Pio Baroja 5	943-590 451
Ormazabal	Olagan 2	943-591 266
Onda	Bazkardo plaza 5	943-593 078
Alproxx	Ondarreta 12	943-200 760
Jurikal	Juan Bautista Erro 2	943-593 653

URNIETAKO FRUTA DENDAK		
Dendaren izena	Helbidea	Telefonoa
Comestibles Juan	Isabald 10	943-009 172
Autoservicio Goya	Isabald 15	943-550 480
Eko-Tolosa	Aranzubi 2	635-700 072
Ibaspe izoki eta gozokiak	Zelaike 2	943-009 427
Fruteria Toñi	Isabald 41	605-708 810
Mujika autozerbitzua	San Juan 27	943-009 593
Fruteria Urnieta	Isabald 20	605-701 556

GIPUZKOA OSOTIK ETORRITAKO GAZTETXOEK PARTE HARTUKO DUTE IX. EDIZIOAN

Benjaminen festa Urnietan, larunbat honetan

Kirola eta lehia, biak enbor bereko bi adaxka baino ez dira izaten askotan. Kirolrik gabe ez da lehiarik; eta buruz buruko hori gabe kirolrik ez. Euskal Jaien egitarau barruan urtero ospatzen den Benjaminen

Kirol Jaiak lotura hori apurtzea du xede. Lehiarik gabeko ekinean jardungo direla, alegia.

Agazkiak: ©Xabier Ubeda

K irolaren inguruko jaiak Urnieta, Tolosa, Herrera, Pasaia, Usurbil, Lasarte-Oria edota Zumarragako 9 eta 10 urteko haur ugari biltzen ditu urtero. Hala, urtean zehar eskola kirolean dabiltzan herri ezberdinetako ikasleak euren artean ezagutu eta elkarrekin eguna igarotzeko aukera izaten dute. Horietako askok larunbat honetan esperientzia errepikatuko dute.

Aurkezpen ekitaldiaren ostean, goizez zein arratsaldean eskubaloiko edo futboleko partida motzak jokatu dituzte. Batzuetan beste 7-10 minutu iraungo duelako partida bakoitzak. Hala, denek kirol modalitate ezberdinetan jokatzeko aukera izango dute. Futbol zein eskubaloiko zelai barruan aldi berean partida bat baino gehiago jokatu da. Parte hartzaile kopuruaren arabera, neurri horiek alda daitezke.

HOBEKUNTZAK TARTEKATZEN

1998. urteaz geroztik ospatzen den kirol jaiak hobetze aldera, pixkanaka, antolatzaileek aldatu eta txertatu dituzte.



Zazpi eta hamar minutuko partida motzak jokatu dira Benjamin festan.

“Lehiakortasuna alboratu genuenetik alde nabaritu dugu”

Horietako aldaketa bat otorduari dagokio. Egun osoko jaiak izanda, eguerdian eten egiten

dira kirol jarduerak. Josu Garmendia seigarrenez jaiak antolatzen ari denetako batek gogoratzen duenez, “bazkalorduan herrikoak etxera joaten ziren eta beste herrietatik etorritakoak, aldiz, bokata bat jaten geratzen ziren kanpoan. Kiroldegia ixten zuten, bi orduan

horretarako oztoporik ere izan dute. Benjamin jaiak txapelketa ukitua izateak zenbait haurrei malkoak eragiten zizkieten. Hain zuzen, egun osoko jaiak oso ondo igaro ostean, amaieran partiden emaitzen sailkapenari garrantzia ematen zitzaion. “Lehiakortasuna alboratu genuen. Ordutik alde nabaritu dugu” adierazi du Garmendia. Jardunaldien amaieran, guztiek domina bana, eskola bakoitzari oroigarri gisa trofeo bana, askaria, eta zenbait opari ematen dizkiete. Ez da kanporaketarik jokatu.

DATAREKIN ZALANTZAK

Hurrengo pausoa, Benjamin jaiak ospatzeko eguna aldatzea izan daiteke. Hain zuzen, Benjamin jaiak parte hartzen dutenek ikasturte osoan eskola kirolean aritzen dira. Ekainetik aurrera berriz, ikastolako jaiak eta hortik aurrera udako oporrak izaten dituzte. Haurrak beste herri batzuetatik datozela kontuan hartuta, zaila da denentzako egun egoki bat aurkitzea. “Iaz zortea izan genuen eta taldeen aldetik, oso jai osatua izan zen” baieztatu du elkarriketatu dugun antolatzaileak. Aurten, ordea, egun desegokia izateagatik jokalarien zereenda murriztu daiteke.

Egitaraua

9:00 Aurkezpena.

10:00-13:00 Kirol jarduerak Kiroldegian. Etena elkartean bazkaria.

15:15-18:00 Kirol jarduerak. Puzgarriak eta beste hainbat joku ere izango dira. Opari banaketa eta askaria.

beren kasa ibiltzen ziren”. Egoera horretaz jabetuta, duela urte batzuetatik, urnietarrek zein bertara etortzen direnek antolatzaileek prestatutako bazkaria dastatzen dute.

Hasieratik antolatzaileek jaiaren aldeko apustu garbia egin nahi izan dute. Jaiak eta kirola uztartu nahi izan dituzte. Baina

Lehiarik gabeko eta jai kutsu handiko ekitaldia larunbat honetan ospatuko da, Euskal Jaien egitarauaren barruan.

Hernani Institutua
A. Iturriaga-K. Labaka



Erdi mailako zikloak (A-D)

- Ekipo eta Instalazio elektroteknikoak
- Mekanizazioa

Goi mailako zikloak (A-D)

- Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineante Proiektatzailea)
- Kultur eta Gizarte Animazioa
- Instalazio Elektroteknikoak

Kolokazio maila oso ona

Izena emateko epea: ekainaren 1etik 7ra



Sta. Bárbara auzoa • 20120 HERNANI
Tel. 943 551 188 – Faxe: 943 552 271
Ordutegia: 9:00-14:00. Astelehen eta asteazkena: 16:00-18:00
www.hernanibhi.com
e-posta: institutua@hernanibhi.com



Eusko Jaialaria

Kultura Sailak diruz
lagundutako hedabidea

36ko Gerra Andoainen

Irabazlerik ba al da bakea galtzen denean?



Eraildako herritarrei gorazarre

Fusilatuen omenezko eskultura inauguratu da, laster aurkeztuko da lekukotzak biltzen dituen liburua

Denborak ez du barkatzen eta haizeak eramaten ditu esanak, baita izanak ere. 70 urte askotxo dira, gehiegi agian. Gerra zibilean bidegabekeri ugari izan zen. Indarrean zegoen Errepublikari bizkar eman eta matxinatu ziren militarrek sarraskia eragin zuten Estatu osoan, hegoalde-tik hasi eta iparralderaino. Andoainen ez zen gutxiago izan. Herri langilea zen, aberzalea eta ezkertiarra hein handi batean. Matxinatuak Nafarroatik Gipuzkoara sartu eta kupidarik gabe fusilatu zituzten errepublikarekin, ezkertiar mugimenduekin edota abertzaleen ideiekin bat zetozen andoaindarrak.

Fusilaketak, erbestea, frontea..., gure aurreko belaunaldiak gertutik bizi izan zuten gerra batek eragiten dituen ondorio latzak. Eta, hain zuzen, eraildako, erbesteratutako edota baztertutako horiek gure abizenak dituzte. 2002 urtean hausnarketa horri helduz, fusilatuen senitartekoeak eta oroi-men historikoa berreskuratzeko interesa zuten herritar taldeak Oroituz taldea sortu zuten. Lan isila, xumea egin dute. Eta eraginkorra. Haiek izan dira iraga-



Aspaldi merezitako loreak errepublikazaleen omenez. Alfaro parkean, Etxeberrietako eremu berrian dago 36ko gerran fusilatu zituzten herritarren aldeko eskultura.

nean izandako injustiziaz erreparatzeko benetako eragileak. Haien lanaren fruitua guztion begietara aurkitzen da Etxeberrieta auzoan. Fusilatuen omenezko eskulturak urte luzez izandako isilune instituzionala

hausten du. Laster argitaratuko duten liburua hainbat herritarren ohorea erreparatzeko baliagarria izango da.

Eskultura inauguratzeko ekitaldian senideak izan ziren benetako protagonistak. Haien

begiradan, hitzetan eta malkoetan erreparatzean nabarmena zen urte luzez isilpean sufritu duten guztia.

Ikasgai ederra izan behar luke orain ez hainbeste pairatutako gerrak. Gerra batean irabaz-

lerik eta galtzailerik ez dago, guztiek galdu baitzuten bakea.

Aiurriren argitalpen hau gaira eta garaira gerturatzeko bokazioarekin egin da, eskualdeko nortasun hitzak helarazteko konpromisoari eutsiz.



Eskultura Alfaro plazan

■ Inaugurazioa omenaldi bilakatu zen II

Testigantza biziak

■ Mari Luz Olalde eta Teresa Anton III

Omenaldia irudi bidez

■ Omenaldiko argazki-erreportaia . . . IV

Oroituz taldearen lana

■ Ahozko testigantzak liburu batean bilduta . . . V

Gudaren lehen egunak

■ Orain 70 urte Andoain herriak pairatu zuena . . VI

Fusilatuak oroituz

■ Goiztirian eraitsitako 22 amets VIII

Fusilatuei eta senideei omenaldia

Maiatzaren hogeian inauguratu zuten eskultura Alfaro Parkean

1936-39 artean izan zen Gerra Zibilean, tropa frankistek 22 andoaindar fusilatu zituzten. Haien eta desagertuen omenezko ekitaldia egin zuten bertaratu ziren senitarteko, udal agintari eta gainerako herritarrek.



Galbidean zegoen oroimen historikoa berreskuratzeko balio handiko ekitaldiak egin ziren aurreko astean Andoainen. Irudian, fusilatu zituzten andoaindarren senideak. Besteak beste, Pako Olalde, Arantxa Arantzabal, Mari Luz Olalde, Teresa Anton, Jose Martinez, Antoni Arzallus eta haren alaba. Atzean ikus daitezke, besteak beste, Ixiar Irulegi eta Maria Jesus Fernandez. © Xabier Ubede

Larunbatean Alfaro Parkean ospatu zen ekitaldian 36ko Gerran biktima izandakoen senitartekoak, udal agintariak, ordezkari sindikalak zein politikoak eta herritarrak bildu ziren. Eskultura aurrean jarri zuten oholta gainean gorazarre, barkamen, biktima edota duintasun hitzak behin eta berri entzun ziren, udal bandak eta zenbait abeslarik eskaini zituzten kanta esanguratsuek tartekatuta.

Eskerrona adierazi zitzaizten senitartekoei, haiek orain artean bizirik mantendu dutelako duela urte dezente jazotakoa. Bizirik baina isilpean. Horiek ikertzen, gaurkotzen eta aztertzen aritu da Oroitz taldea. Taldeko kide **Xabier Lasak** haiek ere biktimak izan zirela gogorarazi zuen. "Errekonozimendu soziala poggaria da, horrek zuek ere biktimak zaretela erakusten baitu" adierazi zuen Lasak. Frankismoaren biktima izan diren asko eta asko isilik hil izana eta fusilatuen argu-

“
Andoaingo Udalaren
izenean 36ko
Gerrako biktimei
barkamena eskatu
ziren alkateak

nek familia aurrera ateratzeko egin zutena goraipatu zuen. Bana, argaluen izen abizenak ahoskatu zituen.

Barkamen eskaerak ere izan ziren. Udalaren izenean, bertako alkate **Jose Antonio Perez Gabarainek** aurrean zituen senitartekoei barkamena eskatu baitzuten. "Andoaingo Udalaren izenean barkamena eskatzen dut faxismoak hildakoei eta senitartekoei samina isilpean eta hainbesteko duintasunez sufritzeagatik". Omendutakoan memoria bizirik mantentzearen aldeko konpromisoa hartu zuen.

Amaieran, eskulturaren estalkia kendu zuten. Fusilatuen senitartekoei loreak utzi zituzten eskulturaren ondoan, tropa frankisten biktima izan zirenen izen abizenak entzuten zituzten artean. Bertaratutako txalo soinu artean. Zizka-mizka batzuk jan ostean, denak bazkaltzera joan ziren. Eskulturak atzean duen paretean, honakoa irakur daiteke: "In memoriam: **Gerra Zibilean fusilatutako andoaindarrei**". Horma handi horretan barriatuta ageri dira frankistek fusilatu zituzten andoaindarren izen-abizenak.

ESKULTURAREN MAMIA

"Goiztirian, arimaren garrasia" izena jarri dio eskulturari bere egile **Gotzon Etxeberriak**. Poesia kutsuz Gerra Zibileko egun beltz haietan gertatutakoa azaldu eta eskulturarekin izan duen harreman aberasgarriaren berri eman zuen. Bere artelanera ger-

“
Hitza hartu zutenen
artean zegoen Pako
Olalde herriko lehen
fusilatuaren seme eta
miliziano ibilitakoa

ratu eta berarekin komunikatzeko dei egiten du egileak. Komunikazioaren arerioak diren eta gizartean egun dauden zarata edo interferentzien gainetik, bere hitzetan, "benetan berarekin hitz egin nahi duenak lortuko du eta". Metaforez betetako diskurtsoan, "denbora honetan eskultura heltzen joan da eta gizarteratzeko unea heldu zaio" gogorarazi zuen Etxeberriak.

POSTARIAREN SEMEAREN HITZAK
Pako Olalde, Esteban Olalde Andoaingo postariaren semea

da. Tropa frankistek bere aita fusilatu zuten. Zortzi anai-arrebak amarekin geratu ziren. Oholtza gainera igota bere bizipen berri eman zuen. "Apaizak aitaren hilotza altxa zuenean, Guardia Zibilean kapitain bat bertaratu zen. Apaizari gorri honen hilotza zergatik altxa zuten galdetu zion. Apaizak gorria ez zela eta egin zuen delitu bakarra zortzi seme-alaba hezte zela erantzun zion" gogoratu zuen Olalde.

Postariaren semea Oriako milizian esku hartu eta borrokan aritu zen Gipuzkoa, Bizkaia eta baita Asturiasen ere. Ipar Frontean atxilotu ostean, bost urtean kartzelan egon eta heriotz-zigorra ere kondenatu zuten. Baina azkenean, horretan geratu zen guztia. Txalo artean gogorarazi zuenez, "nire ideiak ez dira aldatu eta ez dira inoiz aldatuko, ez baitut ahaztuko sekula nire aita gaixoari egin ziotena."

Katalunian bizi da Mari Luz. Saminez oroitzen ditu Gerran eta ondorenean bizi izandakoak.

Mari Luzek hamabost urterekin Andoaindik ihes egin behar izan zuen. Olaldek oroitzen duenez, "abuztuaren 16an San Roke eguzte tropa frankistak sartu ziren Andoainen". Haiek tiroka ari zirela kamioietan ezkutuan ihes egin zuen bere senitartekoein batera. "Lasartera joan eta handik Donostia, Zarautz, Bergara eta Bilbo zeharkatu genituen" adierazi du Mari Luzek. Bizkaiko hiriburuan zirela, tropa frankistak sartzeaz zuzenean, Frantziara joan ziren. Olalderen hitzetan, "han gure osaba bat bizi baitzen". Gerra Zibila amaitu arteko hiru urte luzeak Frantzia eta Katalunia artean bizi izan zituen.

Hura amaituta, Andoainera itzuli zi-

ren. "Apirilaren Iean amaitu zen gerra eta San Esteban eguzte itzuli ginen". "Bizilekurik ez genuen" adierazi du Mari Luzek. Baina laguntza eskaini zion Barandiaran sendiak.

Mari Luzen amari ganbaratxo bat alokairuan utzi zitoten. Mari Luz eta gainerako senideak herriko beste etxe batzuetan bizitzen jarri ziren. Bizitzan aurrera egiteko gogor lan egin behar izan zuten. Tolosan edota Igeldon zerbitzari gisa aritu zen lanean. Igeldon lanean zebilela, preso zuten anaiari ezkutuan janaria ematen zion. Artean, Andoainen ez zuten oso giro ona. Biraoak, umillazioak, eguneroko ogia bilakatu ziren. Guardia Zibilean mehatxuak ere jasan behar izan zituen. "Andoainen bizitzeak beldurra ematen zuen" baieztatu du herrian postari lanetan zebilen Esteban Olalde fusilatuaren alabak.

ANDOAIN BIHOTZEAN DARAMA

Bere aita fusilatu arren, anaiak zorte hobea izan zuen eta aske geratu zen. Lehenago, Mari Luzen senitarteko gehienek jada Bartzelonara alde egin zuten. Anaia aske izanda, Mari Luz eta Andoainen ziren gainerako senideek txartelak eskuratu eta gauza bera egin zuten. Orduetik, Katalunian ezkondu eta familia osatu du. Hori bai, jaioterritik joan behar izan arren, bihotzean darama Andoain herria. "Niretzat Andoain dena da" adierazi du Mari Luzek.



Mari Luz Olalde
[Esteban Olalde Aspuru fusilatuaren alaba]

Andoaingo tren geltokiko buruaren alaba. Urte askoren ostean, aita non ehortzi zuten jakin du.

Maria Teresaren aita, Sekundino, Andoaingo tren geltokiko buruzena. Maria Teresa 15 hilabete zituela, ahizpa jaiotzean zen. Horregatik, Lekunberrira aitona-amonekin bizitzera eraman zuten. "Orduetik haiekin egon izan naiz" argitu du Antonek.

Gerra Zibila hasi zenean, Antonen hitzetan, "familia banatu zen". Hain zuzen, aita atxilotu zutenean, osaba frontean Bergaran zegoen. Biak hil ziren.

Bere aitona trenbideko errailetan lan egiten zuen eta norbait behar zuten tren geltokiko etxean. Maria Teresa bere aitona-amon eta izeba batekin bertara bizitzera joan ziren. Han, telefonoz izan zuten hainbat hilketaren berri. "Nire izebak negarrez ikusten nituen. Zerbait gertatzen ari zela konturatu nintzen". Nor hil zen galdetuta ez zuen erantzunik jasotzen, baina hil zena asko maite zutela pentsatu zuen. Bazen Andoainen Maria Teresak miresten zuen tren gidari bat; Luis Sarriegi. "Hil zena Luis zela esan zidaten".

Garai hartan, horrelako kontuetaz hitz egiterik ez izan arren, denborarekin, aita hil zutela konturatu zuen. Bere hitzetan, "amonak aita faltsuki errudundu zutenaren izen abizenak esaten zituen". Entzuten genuenarekin zer gertatu zen jakiten joan ziren. "Hitz solteak eta moztan ziren elkarrizketak soilik entzuten nituen" gogoan du Maria Teresak. Orduetik, xehetasun gehiagoren berri izan du, baina beste askok bezala, isilpean gorde behar izan ditu. "Beti beldurrez eta kontu handiz hitz egin beharra zegoen".

Duela urte batzuk Zaldibin zenbait hilotzen arrastoak aurkitu zituztela jakin zuen. Antonen hitzetan, "semeak esan zidan, Andoaingo eta gazteak zirela". Bere aita izan zitekeela pentsatu zuten. Horregatik, Arantzadikoenkin harremanetan jarri ziren. "Haiei eman nitzkien gordeta nituen aitaren hiru gutun; tartean, kartzelatik idatzi zuena" zehaztu du Maria Teresak. Lan askoren ostean, aita Polloen lurperatu zutela jakin zuen. Aitari UGTkoa izatea eta gudarien tren bat igarotzen uzte leporatu zitoten.



Teresa Anton
[Secundino Anton Sancho fusilatuaren alaba]

Hunkigarria

Omenaldi zirraragarria



Etxeberria eskultura jendarteari erakusteko unean, Gabarain eta Arregi laguntzaile dituela.



Eskultura fusilatuen senideek eskainitako lehen loreekin apaindua. Hunkigarria izan zen ekitaldia.



Oroituz taldeko bozeramaleak, oroimen historikoa berreskuratzeko eragileak.



Pako Olalde, gerran miliziano aritutakoa eta Sorabillan fusilatu zuten Esteban Olalderen semea.



Omenaldira gerturatu ziren herritarrak eta senideak, fusilatu zituztenen argazkiei begira.



Txistulariek eta Musika Bandak emozio gehiago eman zioten ekitaldiari.

© Xabier Ubeda

Oroituzen lana

Liburua argitaratuko dute



Hitzaldi, mahainguru eta omenaldia osatzeko liburu mardula atondu du Oroitz Andoaingo taldeak, Xabier Lasak Bergararen ardurapean.

L936ko udan frankistak hona sartu zirenean, askok eta askok ihes egin zuen. Gertatu ziren bakar-batzuk, gerrak haiekin zerikusirik ez zuelakoan. Baina Errepublikaren aurka matxinatu zirenek gogor, oso gogor jardun zuten. Kupidarik gabe eta aurrez epaiketarik egin gabe fusilatu zituzten hogeita bi herritar. Laster argia ikusiko duen liburuak herritar hauen guztien amaiera latza biltzen du.

Oroituz taldeak eta egileak berak, hasiera batean, hogeita bi lagun hauen ikerketa lana argitaratu behar zuen. Hariari tiraka, garai latz hori bizi izan zu-

enen datu ugari bildu dituzte dokumentazio mardula osatu arte.

Gerraren testuinguru osoa kontutan hartuta, zentso ezberdinak osatu dira. Errepublika defendatzen 35 andoaindar hil zen frontean. Bere ideiekin leial eta adoretzu jokatu zuten hauek. Bada, bestalde, halabeharrez gerrara joan zirenak. Kintoak dira horiek. Batez ere, Andoaingo baserrietatik frontera joandako 28 gazte daude liburuan. Gerra piztu zenean Andoaingo kaleak hustu egin ziren, biztanlegoa erdirarte jaitsi zelarik. Baserrietan ez zen horrelakorik gertatu, gerrak haiekin ere zerikusirik ez

zuelakoan. Zoritxarrez, soldadutzaz egiteko adina zuten baserrietar askok Frankoren alde borrokatzera joan behar izan zuten. Hori edota zigorra, beste aukerarik ez zuten izan.

Datuak bezala, kontakizun latzak eta hunkigarriak bildu ditu **Xabier Lasak** urte hauetan, "Fusilatu zituztenak adin txikiko haurrak eta andreak utzi zituzten hemen. Alargun haietako bi, senarrak fusilatu eta hilabete gutxira hil ziren. *Nola da posible hori?* Galdetzen nion nere buruari eta haietako baten senideekin hitz egiten jarri nintzen behin. Ama penaz, tristuraz hil zela adierazi zidaten. Hogeita hamar urterekin senarra erahila eta seme-alabekin herritik joan behar izan zuen amaren biografia hori oso gogorra da". Juanita Alberrotaz ari da liburuaren egilea. Hain zuzen, maiatzaren hogeian Alfaro parkean egin zen eskulturaren inaugurazioan Lasak gogoan izan zituen alargunak. Gerrara joan

gabe, gerra pairatu zuten biktima zuzenak horiek denak. Garai hartako emakumeen erretratuak ere agertzen dira liburuan.

LIBURU BAKARRA, BI EDIZIO

Ahozko testigantzak oinarri dira liburu honetan. Gerra bizi izan zutenen eta haien oinordekoen ahotan jasotzen dira gertaera gehienak. 600 orrialdeko liburu mardula osatu du Xabier Lasak, gaztelaniaz zein euskaraz argitaratuko direnak. Ekainaren amaieran aurkeztekotan dira Bastero kulturgunean, senideen parte hartzearekin. Andoaingo ohiko saltokietan salgai ipiniko dute.

LIBURU GEHIAGO, GAIAREN INGURUAN

Hona, bizipen pertsonalak biltzen dituen liburu eta argitalpen sorta. Gaia gehiago sakondu nahi duenarentzat:

- **ALKAIN, Iñaki/ZAVALA**, Antonio: *Gerrateko ibillerak I, I*

eta III. Auspua Argitaletxea. Tolosa, 1981.

- **Orria**. Andoaingo Udalaren ENBA: Hileroko argiltapena, Andoaingo pertsonei egindako elkarrizketekin. 1990-92.

- **Batzuren artean**. *Gerra Zibilaren garaiko ume andoaindarren egunerokotasuna (1936-1939)* Leyçaur 8. Andoaingo Udala, 2004, pp. 195-259.

- **JÍMENEZ DE ABERASTURI**, Luis M^a y Juan Carlos: *La Guerra en Euskadi. Transcendentales revelaciones de unos testigos de excepción acerca de la guerra del 36 en el País Vasco*. Ed. Plaza&Janes. Barcelona, 1978.

- **TORREALDAI**, Joan Mari: *Martin Ugalde. Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena*. Ed. Jakin. Donostia, 1998.

- **UGALDE**, Martin: *Hiltzaileak*. Ed. Erein. Donostia, 1985.

- **ZINKUNEGI**, Agustin: *Bizinaiak lege zorrotzak*. Auspua Liburutegia. Ed. Sendoa. Oiartzun, 1995.

SENIDEEN LAN XUMEA ETA ISILA



Gerrak utzitako itzala betiko galdu aurretik, oroimen historikoa berreskuratzeko saiakerari eutsi zion herritar talde batek. Tartean ziren Gotzon Garmendia, Rosa Arteaga, Xabier Lasak eta enparauak. Taldearen lan dinamika 2002. urtean kokatzen da. Zaldibin aurkitu zituzten bi gorpuzkinak bertakoenak ote ziren susmoa zabaldu zen herrian. Orduan alkate zen Josean Barandiaran gorpuzkin haiei eginiko omenaldian izan zen.

Ordurako Nafarroako eta Gipuzkoako hainbat herritan oroimen historikoa berreskuratzeko taldeak osatzen ari ziren. 2004. urtean ekitaldi sorta batekin lehen omenaldia egin zitzaion Andoaingo fusilatuei eta haien oinordekoei.

Bi urte beranduago omenezko eskultura ipini da Alfaro parkean eta Andoain gerra pairatu zutenen ahozko testigantza zuzena liburu batetan bildu da.

Gudaren lehen egunak Andoainen

Nikolax Agirre lehen hildakoa, Esteban Olalde lehen fusilatua

1936-VII-18:

Militarrek altxamendua burutzen dute eskuineko karlisten, tradizionalisten eta monarkikoen laguntzaz. Nafarroa berehalakoan geratzen da altxatu direnen menpe. Gipuzkoa, ordea, Errepublikari eustearen alde agertzen da.

Andoaingo Defentsa Batzordea osatu zuten abertzaleek, komunistek, sozialistek eta ELA eta UGT sindikatuko kideek. Herriko eskuineko jende seinalatua babestera mugatzen dira lehen egunetan Andoaingo jeltzaleak. Bien bitartean, ezkerreko errepublikanoak Loiolako kuartelean altxa diren edo Nafarroatik datozen tropa militarren aurka mobilizatzen dira.

LEHEN MILIZIAKI ABIAZTEN DIRA LEITZARAN ALDERA

1936-VIII-6 • Irujo buruzagi jeltzaleak hitzaldi sutsua egiten du Goikoplazan, eta herriko jeltzaleak armak hartzera deitzen ditu. Irujoren eraginez, herriko lehen miliziak sortzen dira abertzaleekin eta errepublikanoekin. Lehen partidak abiatzen dira Leitzarango eta Berastegiko bailaretara, handik datozen faxistak gerazteko.

NIKOLAX AGIRRE, LEHEN HILDAKOA

1936-VIII-12 • Lehen hildakoa Andoainen: **Nikolax Agirre** abertzale eta eskaltzale andoaindarra hiltzen da herriko milizien eta tropa militarren artean **Bela-bietako** goi-parajeetan gertatzen den enfrontamenduan.

ANDOAINARRAK KOSTALDERANT IHESI

1936-VIII-13 • Faxistek Tolosa abuztuaren 11n hartzen dute eta hurrengo egunetan Andoaingo ebakuazio zibila gertatzen da: 4000 biztanleko populazioaren erdiak baino gehiagok kostaldera egiten du ihes.

BORROKA GORDINA SAN ROKE EGUNEAN

1936-VIII-16 • Andoain abuztuaren hamaseian sartzen dira faxistak. Beheko kaleetan erresistentzi txikia aurkitu on-

doren, indar errepublikanoak **Belkoinen** eta **Buruntzako** lubakitan posizionatzen dira. Errepublikaren aurka altxa ziren tropa militarrek ezin aurrera segi, batik-batik ezkerreko milizianoek Buruntzako defentsa heroikoa egin zutelako. Okupatzaileek San Roke baselizako inguruetara ezin izango dute igo abuztuaren azken egunerarte.

Donostia irailaren 13an okupatzen dute, eta hortik aurrera frontea Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugan egonkortzen da, Elgeta-Eibar herrien artean 1937ko apirila arte.

LEHEN FUSILATUA, SORABILLAN

Esteban Olalde postaria da herriko lehen fusilatua, **Sorabillan**, abuztuaren 17an.



Santa Zezilia egunez San Martin abesbatza. Gerrak kolpatu zuen taldea. Argazkian, besteak beste, Gregorio Martinez eta Nemesio Fernandez. Urte gutxira fusilatu zituzten.

UDAL AGINTARITZA ESKUINDARREN ESKU

Andoaingo Udala herriko eskuindarren

osatzen da: **Domingo Soroa** lehenbizi eta **Jose Mari Treku** ondoren izango dira Alkate berriak. Berrogei urtez luzatuko duen erregimen diktatoriala ezartzen da herrian. Boterea eskuindarren esku geratzen, herrian geratu diren abertzale eta errepublikano bakanez lehen salaketak, atxiloketak eta fusilaketak jasaten hasiko dira.

FUSILAKETAK BATA BESTEAREN ATZETIK

Abuztuaren 30ean **Etxeberrietako** bizilagun eta familiako aitak diren **Aldasoro**, **Fernandez**, **Arantzabal**, **Arzallus** eta **Amondarain** atxilotu eta fusilatzen dituzte Tolosan. Eraiketa horiek zirrara berezia eragiten dute Andoainen. Ondorengo egun eta hilabeteetan beste hainbat herritar fusilatu zituzten: **Martinez**, **Fernandez**, **Urretzabizkaia**, **Anton**, **Aldaz**, **Prestamero**... Kanpotar ugari ere Andoaingo hilerriko hormatzarean fusilatzen dute.

BOSTEHUN ANDOAINDAR EUSKAL EJERTZITZAN

Ia 500 andoaindarrek Euskal Ejertzitzoan izena eman zuten, Bizkaiko frontean zehazki. Horiakin batera alegindako emakume, haur eta adin nagusikoak, bien bitartean, errefuxiatu gisa bizi dira.

HIRU JOERA POLITIKO NAGUSI

Gerra piztu aurretik Andoaingo alkatea abertzalea zen

1931ko apirilaren 12an, lehen udal hauteskunde demokratikoak ospatzen dira Estatu osoan. 759 botoemaile dituen Andoain herrian abertzaleak nagusi dira. Hona emaitzak:

- **Nazionalistak** 309 boto (7 zinegotzi)
- **Tradizionalista-karlistak** 228 boto (4 zinegotzi)
- **Ezkertiarrak** 61.

Pablo Egibar nazionalista da alkate berria Errepublikak irau zuen bitartean.

BIGARREN ERREPUBLIKA

II. Errepublika aldarrikatu eta demokratikaziarako oinarriak jartzen dira. Bizi-

tzia publikoak egundoko bizitasuna hartzen du. Gipuzkoan bezala Andoainen ere hiru joera politiko, sozial eta sindikal nagusitzen dira. Nor bere egoitzan biltzen da: abertzaleak **Batzokian**, ezkerreko errepublikanoak **Centro Republicano** eta karlistak **Circulo Tradizionalista**.

GERRA BAINO LEHEN

Hauteskunde orokorretan honako emaitzak izan ziren Andoainen: 735 boto **EAJk**, 542 boto **Koalizio Kontrairaultzaileak** (eskuindarren koalizioa), eta 300 boto **Fronte Popularrak** (ezkerreko alderdi eta sindikatuen koalizioa). Gutxira piztu zen gerra.

Lehen hilabeteak Gipuzkoan

Gipuzkoan ia bi hilabetez luzatu zen Gerraren kronika da honakoa. Errepublika desagiteko estatu kolpea eman zuten horiek gizabaliabidez eta gerra-materialez ondo horniturik zeuden. Nafarroatik Gipuzkoara zetozen. Haeu aurre egiteko prest, erantzuteko ahalmen eskasa zuen milizianoen mugimendua.

“

Tolosa, Villabona edota Andoain herrian familia asko erbesteatu zen

Mola eta Franco generalak Espainiako eskuindarren babesa zuten altxamenduen egunean. Monarkikoak, tradizionalistak, karlistak, falangistak, jerarkia katolikoak, kapitalistak, terratenientek... Orokorrean, Espainia osoan aurkaririk gabeko paseo militarra bihurtu zen altxamendua. Errepublikaren zilegitasun demokratikoaren aldeko ez zuten erantzun gaitasunik edukirik horietan guztietan. Aldiz, beste zenbait lekutan, Moliak eta Francok espero ez zuten erresistentzia zibila topatu zuten. Besteak beste Madrilan, Bartzelonan, Bizkaian, Gipuzkoan, Asturiasen...

Errepublikak sustatzen zuen sistema demokratikoarekin asaldaturata, ordena eta justizia berretzerara zetozen Espainiako hegoaldeak. Estrategia basatia eta hiltzailea ezarri zuten, Espainiako etsai eta *desafektuen* aurka. Larritik ordaindu zuten Fronte Popularrak kide edo abertzale izatearen susmoa zuten edozeinek.

Iruñeko Gaztelu plazan, altxamenduko lehen egunetan, milaka militar eta bolondres-erreke eta falangista-antolatatu eta armaz ongi hornitu ostean, Gipuzkoa-Bizkaia aldera, Madrilera eta Aragoira eramaten zituzten frontera borrokatzerara. Gurutzada nazional-katolikoak bezala bataiatu zen mobilizazio hura.

1936ko uztailaren 21ean hiru ejerzito zutabe ezberdin Gipuzkoako norabidean abiatu ziren. Bidasoatik, Berastegiko bailararik eta Goieritik gerturatu ziren hiru zutabeak. Zutabe horiek euren komandanteen izena hartu zuten, hots, Beorlegi, Cayuela eta Latorre. Hurrenez hurren, hauek mobilizazioaren hiru helburu estrategikoak: Donostian Loiolako kuartelean altxa ziren militarrek babesa eman, Irungo mugaren kontrola eta Gipuzkoa erabat hartu.

Gipuzkoan, ezkerreko alderdi politiko eta sindikatuek berehala prest agertu ziren Errepublikaren aldeko gobernu legitimoaren alde. Hasieratik: salaketak, umiliazioak, irainak...

ra batean EAJk bere jarraitzaileak eraikuntza erlijiosoak, elizgizonak eta eskubiko pertsona seinalatuak babesteko mobilizatu bazituen ere, handik aurrera Errepublikaren aldeko erresistentzia armatuan parte hartzera dei egin zuten.

Nafarroatik zetozen tropa faxistek Gipuzkoan erresistentzia gutxi aurkitu zuten. Errepublikazaleen prestaketa militarra eta antolaketa defentsiboa eskasa zen. Nolanahi ere, denbora eskasoa milaka herritar, nekazari, langile eta ikasle bapateko miliziatan antolatatu zituen. Gehienek Errepublikarekin eskuratutako lorpen sozialerako hartu zituzten armak.

Errepublikaren aldekoek, Donostiako kuartelean mabinatu ziren militarrek indargabetzeaz gain, Nafarroatik zetozen zutabe militarren ibilbidea mantsotzea lortu zuten. Baina ez etetea. Eta halaxe, Bidasoan barrena aurrera zihoa zutabeak uztailaren 27an Oiarzun herria hartu zuten. Egun berean, Oria bailararik zihoa zutabeak Beasain hartu zuten eta, egun gutxira, Tolosa.

Tolosan tropa faxistak hiru zutabetan banatu ziren. Cayuela zutabeak mendebaldetik egin zuten aurrera Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Sorabilla okupatzeko asmoz; Becerra zutabea, errepidean barrena Andoaingo hirigunean sartzerara abiatu zen. Hirugarren zutabea, Latorre izenekoa, Uzturre eta Belabietako mendigainak zeharkatuta Leitzarango bailaran barrena abiatu zen. Andoaingo Goiburua auzoan kokapen egokia hartu nahi zuten. Hiru mugimendu horiek abuztuaren 16an lortu zuten bere helburua. Asteasu bezperan erori zen.

Garaipen horiek ospatzeko betarik gabe, mabinatuen zenbait konpainia Albistur, Bidania eta Andatzarratera abiatu ziren, kostalderaino iritsi nahian. Hasi eta berehala eten behar izan zuten, Azpeitin komandantziaren eratu berri zen Euzko Gudazroteko konpainiak aurre egin zitelako.

Konpainia horiek Sasetako kapitain ospetsuak gidatzen zituen, eta mendigoizaleek, Euzko Gaztediko kideek eta Jagi-Jagiko gazteek osatzen zituzten; ekintza horren bitartez jeltzaleak borrokan sartu ziren ofizialki. Murumendi-Mendikute-Iturrioz-Zarateko Benta-Andatza lerro defentsiboa eratu eta sendotzea lortu zen.

Bien bitartean, Tolosako borrokaldira galdu eta atzera egin zuten indar errepublikanoek. Buruntzako gotorlekuetan hartu zituzten posizioak, mabinatuek zeramaten Donostirako bidea oztopatu nahian. Halaxe, faxistek hamabost egunez aurrera egin ezinik egon behar izan zuten Andoainen.

Irun, berriz, irailaren 5ean hartu eta gero Oiarzunetik eta Errenteriatik aurrera zihozten tropak eta Oria eta Urumea bailaretatik zihozanekin irailaren 13an egin zuten bat Donostian. Oriamendiren doinupean 6.000 soldadu faxistak desfilitatu zuten hiriko kaleetan barrena. Irailaren hondarrean, Urola, Deba Garaia eta Deba Beherea azpian hartu eta gero, esan daiteke Gipuzkoako lurralde osoa faxisten esku geratu zela.

Bien bitartean, Bizkaia Gipuzkoako makina bat herritarren babesleku bihurtu zen. Nabarmena izan zen Tolosa, Billabona, Zizurkil eta Andoaingo populazioek bizi izandako hustuketak. Proporzioan, askoz gutxiago izan ziren Asteasutik ihes egin zuten herritarrek.

Aldi berean, esan beharra dago Gipuzkoako fronte osoan izan dako borrokaldiran hildako ugari izan zela bi bandotan. Faxistek atxilotzen zituzten milizianoak berehala fusilatzen zituzten.

Frontea Udalaizt mendiak, Inbortako mendikateak eta Kanpazarko mendateak osatzen zuten lerroan (Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugan) egonkorko zen zazpi hilabetez.

1937ko apirilaren 20an, ordea, Molaren ejertzitoak ofentsiba handiari ekin zion, airez eta lurrez alemaniarren eta italiarren laguntzarekin. Errepublikaren mende zeuden Bizkaia, Cantabria eta Asturias mendeen hartu zituztenean, Ipar Frontea jada bere menpeko geratu zen. Hori 1937ko amaieran izan zen.

Gerra Zibila ofizialki 1939ko apirilaren 1ean amaitu zen, Katalunia eta Madril erabat frankisten menpe geratu zirenean.

22 fusilatutak

Hildako andoaindarrak oroitzuz



ANTONIO ARANZABAL

Lau seme-alaben aita. Abertzale eta errepublikazale.



BAUTISTA MARTINEZ

Errepublikazalea, musikaria eta parrokiko abesbatzako kantaria.



BLAS RUBIO PEÑA

Hiru seme-alaben aita. Abertzalea, Ondarretan fusilatua.



CASIANO IZQUIERDO SANZ

Zortzi seme-alaben aita. Errepublikazale.



CRUZ ALDASORO ELIZASO

Hiru seme-alaben aita. Abertzalea eta errepublikazale.

Alfaro parkean inauguratu duten eskulturaren atzekaldean fusilatu zituzten andoaindarraren izen-abizenak agertzen dira. Hauexek gehiengoan erretratuak.



ESTEBAN OLALDE ASPURU

Zortzi seme-alaben aita. Errepublikazale.



FAUSTINO ALDAZ LABAKA

Lau seme-alaben aita. UGT sindikatuko bazkide.



GREGORIO MARTINEZ

Errepublikazalea, musikaria eta abesbatzako kantaria.



JOXE ARANA ETXENAGUSIA

UGT sindikatuko kide, senideek ez dakite non hil zuten.



JOSE MARIA MONGE CASTILLO

UHP bataloiko milizianoa, Santanderren fusilatu zuten.



JUAN ANTONIO IRULEGI

Biseme-alaben aita. EAJ alderdiko bazkide.



MIGUEL AMONDARAIN

Oria auzoan bizi zen, UGT sindikatuko kide.



MIGUEL URRETABIZKAIA

Alaba baten aita, ELA sindikatuko kide.



NEMESIO FERNANDEZ

Lau seme-alaben aita. ELAko eta EAJko kide zen.



PATXI FERNANDEZ

Bi seme-alaben aita. ELAko bazkide.

JOSE LASA BARANDIARAN

Hiru seme-alaben aita. Atxilotu eta Ondarretara eraman zuten fusilatzerak.

AMBROSIO GARCIA CASCANTE

Sei seme-alaben aita. Errepublikazale. Trentxikiko langile.



PIO ARZALLUS ALBISU

Bost seme-alaben aita. Abertzalea.



SECUNDINO ANTON SANCHO

Hiru alaben aita. UGT sindikatuko bazkide.



SIXTO PRESTAMERO

Seme baten aita. Epaitegiko idazkari, errepublikazale.



VICTOR SARASKETA RUIZ

Seme baten aita, UGT sindikatuko kide.



JOSE CRUZ AMILIBIA

Bi seme-alaben aita. EAJko bazkide.

Aurkezpen ekitaldia

Laster, Bastero kulturgunean

senideen parte hartzearekin

“Ahozko historia: oroimenean lokartutako ahotsa” liburua

Xabier Lasa Bergara eta Andoaingo Oroitzuz taldeak eginiko ikerketa lana. Liburu bat, bi edizio: gaztelaniaz eta euskaraz. Aurkezpena Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan izango da, senideen parte hartzearekin.

AGINTALDIAREN AZKEN URTEAN SARTUTA, ORDEZKARI POLITIKOEN BALORAKETA BILDUKO DU AIURRI ASTEKARIAK

Azken txanpa hartuz, Udal agintariekin solasean

Juan Mari Tomasena, IU-EB. Urnieta

“Gai batzuk adostasuna izatea eskatzen dute, baina borondaterik ez dago”

Gehiago osorik gabeko agintaldia osasungarria dela uste du Ezker Batua taldeko zinegotziak.



Juan Mari Tomasena, Urnieta zinegotzia.

Legealdiko azken urtean sartzeaz gaurde. Zer azpimarratuko zenuke modu baikorrean? Eta ezkorki?

Juan Mari Tomasena: Baikorki, EAJk gehiago osoa ez izatea eta Urnietan ezartzekoak ziren erraustegia ez erakitzea. Gai horren, Urkainberri industrialdien eta autobidearen inguruan herrian sortu den mugimendu soziala ere aipatzekoak dira. Ezkorki, proposamen garrantzitsuak adosteko EAJk duen gaitasun eza eta jarrera inmobilitista, Udal Aurrekontuak bi urteotan onartu ez izana; Urnieta Arau Subsidiarioak geldirik izatea...

Nola baloratzen duzu udal kudeaketa?

J.M.T.: IU-EBtik oso gaizki. Urnietan EAJk ez du ulertzen udal kudeaketan bertan dagoen pluraltasunak parte hartu behar duela. Haiek egindako proposamenak onartzen ez dituztenak areriotzat jotzen dituzte. Horrek herri kudeaketan eragiten du. Bestalde,

Udaletik eskatuta, LKS enpresak egindako azterketak iritzi horiek berresten ditu: kudeaketaren kalitatea txarra dela, diru laguntzetaz ez direla baliatzen, hierarkiaren definizio falta...

Udaletik herritarren ongizatea hobetzeko behar beste egiten dela uste duzu?

J.M.T.: Klean somatzen dudan sentsazioa, ondoezarena da. Udaleko langileek eta teknikoez jartzen zaien lana betetzen dute. Udal gobernuak, ordea, ez ditu baliabide-fondoak etorkizunari begira lurra erosteko erabiltzen: Babes Ofizialeko etxebizitzak, Bigarren Hezkuntzako ikastolaren eraikin berria, Anbulategia...

Gai polemikoetan oposizioarekin akordio posiblerik ba al da?

J.M.T.: Gai polemikoek gehien adostasuna izatea eskatzen dute, baina horretarako borondaterik ez dago. EAJ-PNVren inmovilismoagatik, kontsentsua ez da existitzen. Ekimenak aurkeztu ditugu baina ez dira aintzakoztat hartu.

Datozen hauteskunderi begira, zeintzuk dira zuen aurreikuspenak?

J.M.T.: Hauteskunde ostean, herritarrek nahi dutena eta aurreko udal gobernuak egin ez dutena gauzatzeko unea da. Horrenbestez, herritarrek horri baloratzen eta ondorioak kontuan izanda erabakitzen jakingo dutela uste dut.


Ezker abertzalea udalera itzultzeak zer modutan eragingo du?

J.M.T.: Irekita dagoen prozesua baikortzat jotzen dut. Horrek aukeratzen den ordezkariak herritar guztiena izaten lagunduko du, alderdi politiko guztiak berdintasunean egotea lagunduko baitu. Era berean, horrek herrian sentituenak diren arazoei irtenbide negoziatuak bilatzen lagunduko du.

Mikel Arregi, EAJ-PNV. Andoain

“Akordioa bilatzen saiatu direnean aurkitu gaituzte”

Gobernu taldeak dituen lehentasunak ez ditu beretzat hartzen alderdi jeltzaleak.



Mikel Arregi, EAJ alderdiko burua udaletxean.

Legealdiko azken urtean sartzeaz gaurde. Zer azpimarratuko zenuke modu baikorrean? Eta ezkorki?

Mikel Arregi: Egia esan, legealdi honetan baikor azaltzeko arrazoirik ez dago. Udalerritik kanpo, berriz, baikor izateko arrazoirik badago eta horrek eragina badu herrian. Baikortasun hori klean ikusten da, giroa aldatu egin da eta bakearen aldeko giroa nabaritzen da. Itxaropenaren eta konponbidearen garaia heldu da.

2003an herriko bi alderdi nagusien artean herria aurrera ateratzeko aukera galdu eta abertzaletasuna baztertzen duen gobernu-hitzarmena sinatu zen.

Nola baloratzen duzu udal kudeaketa?

M.A.: Gobernu taldeak azpimarratu dituen lehentasunak ez dira gureak. Guk beste era batera kudeatuko genuke Udala, beste lehentasun batzuei errepertuz. Adibide bat jartzearen, uraren hornidura herri osora bermatzea

lehentasunezkoa da guretzat. Eskilara mekanikoak ipintzea baino beharrezkoagoa. Kudeaketa tekniko egin dutela esango nuke gainera. Teknikariak kudeatu dute eta guk kudeaketa politikoa egitea lehenesten dugu.

Udaletik herritarren ongizatea hobetzeko behar beste egiten dela uste duzu?

M.A.: Gure iritzi herritarren beharrak eta ongizaterako ezinbesteko diren lehentasunak ez dira kasu askotan asetzen. Legealdiaren hasieran prest zegoen euskararen erabilera plana gobernu taldeak hankaz gora jarri eta urtebeteko epean beste bat egingo zutela agindu zuten. Legealdia amaitzera goaz eta ez dute oraindik planik aurkeztu.

Hainbat gaien inguruan oposizioarekin akordio posiblerik ba al da?

M.A.: Akordioak lortzeko bilatu egin behar dira. Oso gai zehatzetan saiatu direnean, aurkitu gaituzte. Fusilatuen inguruko ekitaldia horren adibide garbia da. Gu beti prest egon gara herri honen alde lan egiteko. Beste gai batzuetan akordiorik ez da lortu, haiek ez dutelako nahi izan.

Datozen hauteskunderi begira, zeintzuk dira zuen aurreikuspenak?

M.A.: Ez da erraza egitea, hemendik urtebetetera gauzak aldatu egingo baitira. Gehienbat ezker abertzaleak aurkezteko aukera izan dezakeelako. Horrela bada, udal konposaketa erabat aldatuko da.

Ezker abertzalea udalera itzultzeak zer modutan eragingo du?

M.A.: Agintaldi honetan modu txarrean eragin du ilegalizazioak. Ezker abertzalea udaletxean izanda, ziurrenik dugun gobernu taldea ez zen osatuko. Alkatea ere ezberdina izango zen.

Ona da edozein talde politikok udal gestioan iritzia emateko aukera izatea.



HIAZINTO FERNANDORENA

Oroitzapen merezia

Gauza jakina da Iparraldean bederen hildakoei buruz aski ezaguna dela "oroietatoti" esaldia. Eliz ateetako hilerrietan begira jartzea aski duzu, maiz ikusiko duzun esaldia da eta, hain zuzen. Hala, 36ko gerrakoan hildakoak ditut aipagai eta gogoan zutabe honetan. Hauetarik, ez dakit gure herrian bakarren bat izan zen nafar askoren antzera "Dios, Patria y Rey" lemapean erlijioa eta Espainia defendatzearren armak harturik frontera joan eta bizia galdu zuenik. Derrigorrean eraman eta han bizia eman zuenik, bai, badira bat baino gehiago. Har bezate hauek nire begirune adeitsuena.

Alabaina, gerrakoan erailak, fusilatua, izan zirenak ditut hemen bereziki gogoan, hots, zarpatik hartu eta gauez edo eguneko argitan eta bazter batean fusilen balapean erailak izan zirenak. Esan behar dut Aiurri azken zenbakian "El salvoconducto" izenburupean **J. Unanuek** kontatu gaztetxo batzuen ustekabeko ibili eta estuasunen berri ematen zuela eta hark eragin eta sakatu nauela gai hau jorratu edo beroni buruzko zenbait gogoeta egiteko jokabidea hartzera.

Ezin uka harridura puxka batekin heltzen diodala gaiari. Izan ere nola aurten betetzen diren 70 urte fusilamenduak burutu zirenekoa, Urnietako herrian ez baitut ikusten, nik dakidanez, inolako mugidarik zentzu honetan. Zenbait herritar egitate horretan inplikatu izan zirelako mokadu mingotsegia gertatzen ote? Zer da orduan? Zabarberria? Inguruko zenbait herritan, ezker-eskuin, Andoain eta Hernanin esaterako, ez da horrelakorik gertatzen. Gurek ez ote dute oroitzapen kokor bat bederen merezi?

Gaur egun herriko jendeak, ez naiz kanpotarrekin ari, beste ekintza batzutan mugitzen den bertako jendeak, kezka gehiago ez erakusteak harritzen nau. Oker gerta naitekeela ere aitortu behar dut.

Badakit Nafarroako **Sartaguda** herrian hainbateko izugarrikeriarik ez zela izan **Urnietan**. "El pueblo de las viudas" deritzo harrezkero herri hark. Badakit, baina Urnietako herriak, hain txikia izan arren garai hartan, zigor galanta jasan behar izan zuen. Galdegin beste-

la guraso edo senide baten eraiketa haragi bizitan jasan behar izan zuten familiar edo ondorengoei. Ni neu umea nintzen arrunt, baina 17 edo 18 bat eraildako kontatzen zirela entzun izan dut beti.

Sartaguda aipatu dut, eta **Hernaniko** kasuan ere Estubegiko zubi zuloa eta Kanposantua lekuko latzak dira. Hernani, bestalde, omenaldi ospetsu bat prestatzeko eta fusilatuei buruzko oroigarri bat izango den monumentua eraikitzeko lanetan ari da eskuak betean eta hala ere Andoainek hartu dio aurrea, haien alde ekitaldi bat burutuz eta Etxeberrietako plazan oroitarri bat eraikiz.

Nik neuk ez dut eskatzen Urnietako herria beste hauen parean jarri behar denik, eta jarri daitekeenik, ez gurek merezi ez dutelako, baina ez nago ahanzturaren zaku ilun batean gure eraildakoen oroitzapena zuloratu behar dugunik ere. Ez nago inola ere horretan, eta are, zerbaitetan parte hartu behar izanez gero, nire lankidetzaren emateko berebat prest nagoea aitortzen dut lerro hauetaz baliaturik.

Halaber, jakinik nago Usurbil eta Oiartzun herriak ere, besteak beste, mugiturik dabiltzala jokabide horretan. Bestetik, ez da hilabete asko oraino **Asteasu**ko herriak omenaldi xume bezain bildua eskaini ziela bertako fusilatuei. Omenaldi apala eta goxoa benetan, Udaletxeko areto nagusian ospatu zena. Bertan izan nintzen eta haren lekuko naiz. Herritar multzo bat, ez handia, hitzaldia, bertsolari eta kantariak, elementu ezberdinez osaturiko liburuxka polit bat, herriko plaza urratuaren argazkia azalean daramana, barnean fusilatuen zerrenda eta hauen zenbat argazki eta **M. Anjeles Uzkudun** anderearen une haietako gertaerak aipatuz osaturiko kontakizunen mezua.

Hantuste gehiegirik gabe baina garbi daukat gisa horretako zerbait Urnietan egin behar litzatekeela ondo eta bidez, San Migel aurrean adibidez edota Eguberri inguruan, beti ere urtea amaitu aurretik behitzat. Eta gorago aipatu bezala lan horretarako nire eskaintza berriztatzen dudala esanez. Pilota jaso nahi duenak...

HITZ-GEZIDUNAK

		Nukleoari dagokio	Noka, da	Barazki mota
		Herri baxenabartarra	Neurritasun	Nafarroako ibarra
		Pl., musika tresna		
		Sexu eme		Jainko egiptoarra
				Gizon izena
Azkartasuna	Gipuzkoako hiria	Gaixoa		Zangoaren atala
Edertzeko zernahi	Moztuak	Pisu unitatea		
* IRUDIKO AUZOA				
Ospea				
			Boroa	Eztiaren kontso.ak
			Non atzizkia	Infin., sartu
Noren atzizkia	Irakasle arra			
Sugetzar mota	Katearen kontso.ak			
				50
				Oxigenoa
Agiria			Zorua	

6 EZBERDINTASUNAK



6 alde daude marrazki 2 hauen artean


5 X 5

Ezker eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					

1. Errusiako hiriburua.
2. Izanikoak.
3. Asiako mendebaldeko estatu.
4. Gizon izena.
5. Ezeztatu.

MARRAZKI BITXIA



Koloreztatu atal puntudunak eta marrazki bitxi bat azalduko zaizu

ERANTZUNAK

U	T	V	K	U
T	E	I	K	A
I	R	I	S	I
A	K	A	H	I
K	A	H	I	A
U	S	K	U	



V	A	K	A	H	I	A
A	N	A	K	O	N	D
V	A	N	A	I	S	U
Z	T					
Z	I	T	U	R	I	O
I	A	R	R	A	R	I
A	V	I	E	R	I	A
R	A	U	L	A	L	
K	A	N	A	K		
Z	E	B	U	N	Z	
L	D	N				

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEMARIA

Manuel Larramendi
Kultur Bazkaria

INISTORRA

Ekoizlea: ERROITZ
KULTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren Andoaingo Udalerrri Biltzarra eta Urnietako Inistorra Euskaltzaleen Biltzarra.

Egoitza Orokorra:

Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: aiurri@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Urnietako egoitza:

Ordutegia: 09:00-13:00.
San Juan Plaza, 9
20130, Urniet
Tel.: 943 331 455
@: urnieta@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.

Erredakzioa:

Ainhoa Gil, Aritz Gorriti, Jon Ander Ubeda eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.

Publizitate

Arduraduna: Fernanda Irazu.

Argazkilariak:

Xabier Ubeda.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia (Huarte-Iruñea).

Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870

Kudeatzailea:

Aitziber Arreseigor.

Banaketa

arduraduna: Xabier Ubeda.

Banatzaleak:

Andoain: Laida Jauregi, Elixabet Isasi.
Urnietako: Ander Balda, Beñat Erkizia.

Agenda

MAIATZAREN 26TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: 943 300 732 / aiurri@topagunea.com

Euskal Jaiak

Urnietako

- Maiatzak 26, ostirala**
17:00 Gazteentzako Mus Txapelketa.
17:00 Grafiti tailerrak.
19:00 Txupinazoa udaletxetik.
19:15 Kalejira, Txanbolinen eskutik.
20:00 Koadrilen arteko areto futbola.
- Maiatzak 27, larunbata**
09:30-18:30 **Kirol jaiak** kiroldegian.
12:00 Kalejira, Txanbolinen eskutik.
12:00 Trikipoteoa herriko kaleetan.
14:00 Gazte koadrilentzako bazkaria.
16:00-17:00 Goitibehera lasterketa, Bidegurutzeta eta Zabaleta auzoen artean.
17:00-19:00 Kalejira txarangarekin.
22:30 Urnietako Rock jaialdia Saroben: **Biok, The Cepo,** eta **Captain Nemo.**
- Maiatzak 28, igandea**
10:30 Diana, Txanbolinen eskutik.
10:30-13:00 Eskulan tailerra.
11:30 Urnietako IV. Erraldoi eta Buruhandien Kontzentrazioa.
12:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira.
12:00 Txanbolinen kontzertua.
13:30 Erraldoien dantza saioa.
16:00 Haurrentzat zesta punta tailerra.
17:30 Zesta punta partida, pilotalekuan. Ondoren, trikiti erromeria.
- Ekainak 3, larunbata**
21:00 Bertso afaria: Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbio. Pilotalekuko tabernan. Izen ematea: 20 euro.

Pilota

Urnietako

- Gipuzkoako Alebinen Txapelketa**
Maiatzak 27, larunbata
16:00, Urnietako Udal Pilotalekuan.
Mundarro-Urnietako 2 (Julen Loitegi eta Ander Oiarbide)
Urnietako 3 (Aritz Lizaso eta Aitor Pagola)-Hernani 1
Andatzpe/Pagola-Urnietako 1 (Xabier Ansa eta Unai Garin)

Kontzentrazioa

Urnietako

- Etixerat** taldeak deituta, presoen alde
Maiatzak 26, 20:00, San Juan Plaza

Irteera

Urnietako

- Mountain Bike** irteera eta **oinezko marxa herrikoia** Leitzarnera, Eteneta elkartek antolatuta.
Ekainak 4, igandea
- 8:45 Irteera: Urnietako Renfe geltokitik trenetara Andoaingo apeaderoraino.
13:30 Andoainen tren hartu eta Urnietara itzulera.
14:30 Bazkaria Eteneta elkartean.
Irteera edota bazkarirako izen emateko epea: maiatzaren 24tik 31era
19:30etatik 20:30etara Eteneta elkar-

tean (Idiazabal 5 behe).

Helduen menua: 18 euro. Haurrena: 8 euro.

Oharra: Mountain Bike irteerarako kaskoa beharrezkoa da.

Opera

Andoain

- Hansel y Gretel** opera haurrentzat.
Maiatzak 28, igandea.
12:00, Bastero

Mendizaleak

Andoain

- Ainhoa-Atxulegi(617)-Mondarrain (749)-Pas de Roland-Itsassou**
Ekainak 4, igandea

Erakusketa

Urnietako

- Txotxongilo erakusketa** Lekaio Kultur Etxeko Polibalente Gelan.
Ordutegia:
Asteleheneetik ostiralera: 17:00-20:00
Larunbat eta igandeetan: 12:00-14:00

Odol emaleak

Urnietako

- Maiatzak 30, asteartea
19:00-21:00, Anbulatorioa

LAN DEIALDIK

GAZTE ETA HAUR HEZITZAILEA

- Deitzailea:** Urnietako Udala
- Ezaugarriak:** Urnietako Udalerri gazte eta adingabeentzako ingurune irekiko gizarte eta hezkuntza zerbitzua.
- Epea:** 2006-V-31.
- Info:** 943 008 000.
urnieta@udal.gipuzkoa.net

URETAKO SOROSLEA

- Deitzailea:** Gipuzkoako DYA.
- Ezaugarriak:** Orioko, Zumaiako eta Mutrikiko hondartzetan lan egiteko sorosleak.
- Epea:** 2006-V-30.
- Info:** 943 464 622.
www.dyagipuzkoa.com

UDALTZAINA

- Deitzailea:** Beasaingo Udala.
- Baldintzak:** 2. hizkuntza eskakizuna, eskola graduatua, LHI edo baliokidea, baldintza fisikoak betetzea.
- Ezaugarriak:** Beasaingo Udalean udaltzain lanpostua.
- Epea:** 2006-VI-06.
- Info:** 943 028 050.
udala@beasain.net

PERKUSIO IRAKASLEA

- Deitzailea:** Beasaingo Udala.
- Baldintzak:** Erdi-mailako irakasle titulua perkusioan.
- Ezaugarriak:** Loinatz Musika eskolan perkusio irakasle.
- Epea:** 2006-VI-06.
- Info:** 943 028 050.
udala@beasain.net



Ludoteka

Tailerrak eta kanpo-jarduerak: txangoak, ibilaldiak, jolasak...
Adina: 3 eta 6 urte bitartekoak (2000 eta 2003 urte bitartean jaioak).
Data: uztailaren 3tik 28ra, asteleheneetik ostiralera.
Ordutegia: 09:00 - 13:00.
Prezioa: 72 euro.

Jolastu euskaraz

Irteerak, jokoak, eskulanak eta kirolak (instalazio egokietan eginiko igeriketa, jarduerak naturan, kirol alternatiboak...).
Adina: 7 eta 12 urte bitartekoak (1994 eta 1999 urte bitartean jaioak).
Data: uztailaren 3tik 28ra, asteleheneetik ostiralera.
Ordutegia: 10:00 - 13:00.
Prezioa: 56 euro.

Izena emateko epea: ekainaren 6 arte

Euskara Zerbitzua
Lekaio kultur etxea • 943 008 033
euskara@urnieta.org

Urnietako Udala



Agenda 21 Urnietan



Asteartean udal pleno berezia izan zen. Agenda 21 eskolarraren barne, Egape ikastolako LH eta DBHko ikasleak alkatearekin bildu ziren. Ingurugiro arloko hainbat proposamen egin eta alkateak horren inguruko jarraipena egitea eskatu zien.

Euskararen aldeko kanpainak



Ileapaindegitan eta frutadendetan euskaraz eskatu eta errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina aurkeztu dute Buruntzaldeko udalbatza euskara batzordeek. Ekin horiek guztiek euskararen erabilera bultzatzea dute xede.

Zorion-agurrak aiurri@topagunea.com



ZORIONAK

Arixen Unanue Usabiagak bi urte bete-ko ditu ekainaren 1ean. Ama eta amon-ña txora-txora eginda dauzka alabak.

URNIETA



ZORIONAK

Jon Abrego Zabalak maiatzaren hogei-ta hamaikan sei urte beteko ditu. Muxu handia, ondo-ondo pasa!

ANDOAIN

Aurreko igandean aritu ziren Urnietan, jende gutxiren aurrean

Urnietako eta Andoaingo dantzarien erakustaldia



San Juan plazako taulagainean herri ezberdinetatik etorritako dantzariak parte hartu zuten.

© Xabier Ubeda

Urnietan, Lasarte, Andoain eta Berako gazteek dantza saio polita eskaini zuten igandean San Juan plazan.

Herrian zehar kalejiran ibili ziren goizean eta hamaiketako goxo bat egin ondoren, dantza saioa eskaini zuten plazan bildutakoekin aurrean. Ikasturtean ikasitakoa erakutsi zuten gaztetxoek. Ekainaren 4an, Andoain izango da dantzarien jarduna ikusteko aukera.



Euskal dantza ezberdinak ikusi ahal izan ziren igandeko saioan.



© Xabier Ubeda



ESKAINITZA

902 345 125
clientes@giauto.es

Hilero hilero zure Opela zaintzen dugu

-24%
Olioak

-10%
Filtro

-10%
Haizetako Garbigailuak

Giauto * Maiatzaren 1etik 31ra bitartean

ELGOIBAR · BERGARA · ARRASATE · EIBAR · ANOETA · OLABERRIA



-15%
Pneumatikoak

www.giauto.es